
IKASTETXEETAKO ESKU HARTZEA ESKOLA JAZARPENEN KASU BAT DAGOENEAN.

**ELKARBIZITZA POSITIBORAKO ESKOLA
JAZARPEN KONTRAKO EKIMENA
HEZKUNTZA SISTEMAN.**

Albizu Intxausti, Aitor (Durangoko Berritzeguneko aholkularia).

Extramiana Cameno, Ana María (Donostiako Berritzeguneko aholkularia).

Fernández Roldán, María Victoria (Irungo Berritzeguneko aholkularia).

Fernández Martínez, Alfonso (Inspector de Educación).

González Molinero, Belén (ISEI-IVEI).

Muga Villate, Fernando (Asesor del Berritzegune Central).

Martínez Fernández De Larrinoa, Paz (ISEI-IVEI).

Santiago Martínez, Jesús María (Inspector de Educación).

ESKOLA JAZARPENeko KASU BAT DAGOENEAN IKASTETXEETAN EGIN BEHARREKO JARDUERAK

1. USTEZKO JAZARPEN KASUEN INGURUKO ESKAEREN HARIRA EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEAK. Informazio eta jarduera garrantzitsuenen laburpena.

Protokoloaren izaera

Oinarrizkoa eta nahitaez bete beharrekoa da unibertsitatez kanpoko EAeko ikastetxe guztietan.

Noiz ekin behar zaie jarduerari?

- Ikastetxeak eskola-jazarpenerako jokabideak ikusi dituen kasu guztietan, ikasle edo familiaren batek hala adierazitakoan edo poliziaren aurrean, epaitegian jarritako salaketa bat edo Arartekoarenean jarritako kexa bat dagoenean.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatzen duenean.

Ikuspegi praktikotik begiratuta, 0 ERANSKINA (Familiarekin eginiko bileraren akta) eta I. ERANSKINA (Ikastetxeko bileraren akta) beti bete behar izatea dakar.

Noiz abiarazi behar da Protokoloa?

- **Hezkuntza-taldeak** eginiko bilerako ondorioek –I. ERANSKINean jasotzen direnak– jazarpena badela adierazteko zantzuak badirela adierazten dutenean edo jazarpena badagoen edo ez zalantzak daudenean.
(Jazarpenik ez dagoela zalantzarik gabe ziurta daitekeenean bakarrik amaitu ahal izango dira jarduerak I. ERANSKINarekin, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzak horretarako baimena ematen badu. Kasu horietan, I. ERANSKINean zehatz justifikatu beharko ditu ikastetxeak gaiaren inguruan ateratako ondorioak.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatzen duenean, beti.

201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura.

- Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du beti jokabideak zuzentzeko prozedura abiaraztea, 201/2008 Dekretuan ezarritakoa betez.

Urratsak	Deskribapena	Jarri arreta hauei...	Sustatu	Saiatu hauek saihesten...	Dokumentuak eta bestelakoak
<p>1</p>	<p>Eskola-jazarpena izan daitezkeen jokabideak behatzea; baita eskola-jazarpena egotearen zantzu izan daitezkeen ere. Jazarpenekoa izan daitezkeen egoeraren berri ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irainak, erasoak, ikaskide bati burla egitea, ikaskidea irriarri uztea, txantxak eta abar. - Umore-aldaketak, tristura, somatizazioak, bakardadea, uzurtzea, errendimendu akademikoa okertzea, eskolara ez joatea eta abar. - Kontuzko espazioak / uneak: patioak, korridoreak, komunak, gela-aldaketak, jangela, eskola-garraioa, sarrera-irteerak ... 	<ul style="list-style-type: none"> - Sentsibilizazioa jazarpenari edo tratu desegokiari lotutako keinu eta jokabideen aurrean. - Gainerako irakasleei komunikatzea. - Esperientzia handiagoa dutenei laguntza eskatzea jardueren inguruko zalantzak edo segurtasun-gabeziak daudenean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Jazarpena zuzenean erraz ikusten dela sineste. - Garrantzirik ez ematea ohiko bihurtutako jokabide desegokiei (irainak, erasoak, etab.). - Lankideekiko komunikazio-gabezia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait espazio eta unetan behaketak egiteko <i>ex profeso</i> sortutako erregistro-orriak. - Harremanen eta elkarbizitzaren diagnostikoa egiteko tresnak (probertzioa / prebentzioa). - Detekzioarako adierazleak.
<p>2</p>	<p>0 eta I. ERANSKINAK Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea. Lehen bilera. Protokoloa abian jarri edo ez erabakitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Behatutakoen jatorria ikastetxean dagoenean egin beharreko jarduerak, Ertzaintzarenean jarritako salaketa batean, sendagilearen txostena eta abar. - Esku-hartzeko eskaeraren jatorria familian dagoenean egin beharreko jarduerak. - I. ERANSKINA egiteko irakasleen bilera egiteko epea: 5 eskola-egun. - Erabakia A txostena egitera daraman Protokoloa abiaraztearen inguruan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ustezko jazarpenaren inguruan eskuragarri dauden datu guztiak biltzea. - Erreferentziazko ikuskatzailearekin eta Berritzeguneko aholkulariarekin berehala harremanetan jartzea. - Urgentziazko neurriak berehala hartzea (ustezko jazarria, erasotzaileak, ikusleak, familiak). - Ebidentziak jasotzen hastea (behaketa sistematikoak irakasleek eta beste batzuk) jazarpenik baden edo ez erabakitzeko. - Diskrezioa jardueretan. - Kasu bakoitzari egokitutako esku-hartzeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Umeen gauzak, umeen jolasak eta abar direla pentsatzea. Gertatutakoak hutsaltzea. - Urgentziazko neurriak ez hartzea. - I. ERANSKINA garaiz ez egitea. - Familiaren eskaerari garrantzia kentzea. - Familiak kontatutako gertaeren bertsioa eztabaidatzea edo zalantzan jartzea. - Diskrezio edo zuhurtzia faltagatik egoera larriagotzea, behar bezalako garrantzirik ez ematea eta abar. 	<ul style="list-style-type: none"> - 0 ERANSKINA (Familiak kontatutako gertaerak hitzez hitz jasotzea, eta egoerak, uneak, inplikaturako ikasleak, gertaerak eta abar zehatz jasotzen saiatzea. / Berehala aplikatzeko urgentziazko neurriak jasotzea). Familiak eta ikastetxeko zuzendariak sinatuko dute. - I. ERANSKINA (Hasierako eskaerako datuak egiaztatzea / Protokoloa abiaraztearen inguruko erabakia). - DDD: 201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura abiarazteko erabakia

Urratsak	Deskribapena	Jarri arreta hauei...	Sustatu	Saiatu hauek saihesten...	Dokumentuak eta bestelakoak
3	A TXOSTENA Informazioa jasotzea eta aztertzea. Urgentziako neurriak hartzea. Lehen komunikazioa familiei.	Ebidentziak zenbait iturritatik (irakasleak, jantokiko langileak, ikasleak, etab.) eta zenbait prozeduraren bidez jakinarazitako gertaeren inguruan, ea eskola-jazarpenik baden eta balego, ea zer larritasun duen zehazteko.	<ul style="list-style-type: none"> - Diskrezioa jardueretan. - Langile guztien esku-hartzeak behar bezala kudeatzea. - Kasu bakoitzari egokitutako esku-hartzeak. - Iturri eta baliabide bat baino gehiago erabiltzea eta horiek <u>triangelatzea</u>. - Gelan esku-hartzeen plangintza egiten hastea, egoera leheneratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> -Indiskrezioagatik, behar bezalako arreta ez eskaintzeagatik eta abarregatik egoera larriagotzea. - Informazioa jasotzeko zenbait tresna bereizi gabe eta desegoki erabiltzea. - Esku-hartzeak desegoki kudeatzea (Bilerak familiekin, ikasleekin eta tutoretzetan). 	A TXOSTENA (Jazarpena badela zehazteko, datu eta ebidentzia egiaztagarri eta objektibagarrietan oinarritzea /Lehen hartutako neurriez gain, jarraitutasuneko urgentziako neurriak hartzea). - DDD : erabakia jokabidearen zuzenketaren inguruan, Prozedura Zuzentzailearen arabera doituta.
4	A TXOSTENA Hezkuntzako Ikuskaritzara bidaltzea	- Txostena egiteko eta Hezkuntzako Ikuskaritzara bidaltzeko epea (15 lanegun gertaeren berri dagoenetik zenbatzen hasita).	<ul style="list-style-type: none"> - Txostena zuzen betetzea, bai sakoneko gaietan, bai formari lotutakoetan. - Ikuskaritzaren edo Berritzeguneen aholkularitza. 		A TXOSTENA : ikastetxeak zigilua eta sinadura jarri behar dizkio. Irteerako erregistroa Ikuskaritzara bidaltzeko. -Detekziorako adierazleak.
5	EZ da ondorioztatu eskola-jazarpenaren ebidentziarik: kasuaren araberako hezkuntza-tratamendua.	- Kasu bakoitzerako egokiak diren heziketa-neurriak hartzea. A TXOSTENean jasota egon behar dute.	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarbizitza positiboko elementu egokiak lantzea. - Jazarpenaren Aurkako Planetik etorritako prestakuntza ikastetxearen eskariz. 	- Neurririk ez hartzea , "jazarpenik ez dagoelako".	
6 eta 7	B TXOSTENA BAI , aurkitu dira eskola-jazarpenaren ebidentziak: prozedura espezifiko a eta B TXOSTENA egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Jazarpen-egoeraren jarraipena eta hari buruzko informazioa osatzea edo beharrezkoa balitz, datu berriak jasotzea. - Taldeko - gelako egoera leheneratzeko Jarduera Plana zehaztea. - Bilerak familiekin. - Erabaki egokiak hartzea biktima/erasotzaile/ ikusleekin. - Jarraipena egiteko neurriak ezartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Heziketa-neurriak ikasle guztiekin. - Hartutako neurriak egokiak diren edo ez jakiteko ebaluazioa. - Jazarpenaren Aurkako Planetik eratorritako prestakuntza (nahitaezkoa). 	<ul style="list-style-type: none"> - Zigorrean eta erruztatzean oinarritutako neurriak. - Konfidentzialtasun-falta. - Jazarpen-egoera ez dela berriro gertatuko uste izatea. 	B TXOSTENA : Jazarpena badago bakarrik beteko da.

BIZIKASI EKIMENA

Urratsak	Deskribapena	Jarri arreta hauei...	Sustatu	Saiatu hauek saihesten...	Dokumentuak eta bestelakoak
8	B TXOSTENA Hezkuntzako Ikuskaritzara bidaltzea.	- Kasu guztietan igorriko da Hezkuntzako Ikuskaritzara, A TXOSTENA igortzen denetik zenbatzen hasita, 22 eskola-eguneko epean .	- Txostena zuzen betetzea , bai sakoneko gaietan, bai, forman. - Ikuskaritzaren edo Berritzeguneen aholkularitza		B TXOSTENA : ikastetxeak zigilatu eta sinatu behar du. Irteerako erregistroa Ikuskaritzara bidaltzeko.
9	Beste instantzia batzuetara ere komunikazioak , hala badagokio..	- Jazarpenik badagoen edo ez kontuan hartu gabe, larritasun handiko kasuetan edo delituzantzuak daudenetan, Fiskaltzari 201/2008 Dekretuaren 75. artikulua arabera emango zaio egoeraren berri.			
10	Kasuaren amaiera .	- Ikastetxeko zuzendaritzak idatziz jakinaraziko dio erreferentziazko ikuskariari, egoera behar bezala bideratu dela ikusten duenean	- Egoera bideratuta egon arren, egin kasuaren jarraipena , beharrezko irizten denean.		Ikastetxeko zuzendaritzak kasuari jarraipena egiteko txantiloia.

Esku-hartzeko eskaera egiten denetik, arreta berezia eskaini behar zaie egoera hauei:

Harremana familiekin

- Esku-hartzeko eskaera egiten duten familia guztiei ahalik eta arreta onena eskaini behar zaie. Aurkeztutako eskaerari dagokion kasua, azkenean, ez dela jazarpen-kasu bat ondorioztatzen bada ere, eskaera egiten duten familiek arreta eta haien seme-alaba ikastetxean babestuta eta seguru egongo dela jakitearen segurtasuna merezi dute.
- Gaia oso serio hartu dela jakiteak lasaitu egiten ditu familiak eta konfiantza ematen die. Garrantzitsua da familiekin ulerkor jokatzera eta inori errurik ez egozten saiatzea. Oso argi utzi behar da azken helburua haien seme-alaben ongizate eta garapen pertsonal, sozial eta moral egokia dela; baita seme-alabak jazarpen-egoeraren batean tartean egon badira ere.
- Familiekin egiten diren lehen komunikazioak kontu handiz planifikatu behar dira eta bilera bakoitzaren helburuak argi zehaztu behar dira. Elkarrizketetan parte hartzen duten solaskideen kopuruak txikia izan behar du.
- Familia bakoitzarekin bereiz lan egitea komeni da. Prozesuaren amaieran edo oso ondo oinarritutako arrazoiengatik bakarrik egin ahal izango da lan familia batekin baino gehiagorekin. Funtsezkoa da liskarrak saihestea.
- Bilera guztien akta egitea komeni da. Adierazi bileraren helburuak, bertaratutakoen izenak, ateratako ondorioak eta eginiko proposamenak.
- Familiei haien seme-alabaren egoeraren inguruan ematen zaien informazioetan, ez zaie inoiz beste ikasleei buruzko informaziorik emango.
- Zuzendariak jazarriaren eta erasotzailearen familiei deituko die. Ikusi gomendioak jardunbideei buruzko gidan.

Ikasleekin egin beharreko lana

1.- *0 ERANSKINA eta I. ERANSKINA egiten direneko uneen arteko aldia*

- Zuzendaritzako eta irakasleen taldeak datuak eta ebidentziak bilduko ditu 0 ERANSKINean familiak emandako informazio zehatzetatik abiatuta, edota irakasleek, ikasleek eta abarrek emandako informazioetatik abiatuta.
- Funtsezkoa da ahalik eta diskrezio eta zuhurtzia handienarekin aritzea, ustezko jazarpena ez hedatzeko eta kontrolatik kanpoko egoerarik ez sortzeko. Talde-gela osoarekin zuzenean ez esku hartzea gomendatzen da, ezta ikasle-taldeekin ere. Hobe da ikasleekin banan-banan, modu espezifikoen esku hartzea. Hala ere, salbuespenak badaude: aurrez prestakuntza jasotako ikasleak badira eta horiekin talde txikietan lan egin badaiteke, edo jazarpen-egoera arina delako talde osoarekin esku har daitekeela erabakitzen bada.
- Askotariko estrategiak erabil daitezke datuak biltzeko: zuzeneko behaketa, inplikaturako ikasleak elkarrizketatzea (kasu honetan, oso garrantzitsua da elkarrizketaturako ikasleen adina, nork elkarrizketaturako dituen eta zer prozedura erabiliko den kontuan hartzea), autotxostenak eta abar. Beti da hobe asko inbaditzen duten metodoak baino gutxi inbaditzen dutenak erabiltzea; ohikoenak, eta ez ezohikoenak. Arduradun hezitzaileek ez diete ustezko erasotzaileei informazioa zer iturritatik jaso duten jakiteko aukera emango dieten daturik inoiz emango.

- Funtsezkoak dira ustez jazarpena jasaten ari den ikasleak babesteko neurriak: erreferentziarako heldu bat esleitzea, ustezko biktimari une oro lagun egingo dion ikasle bat edo batzuk (kasu horretan, prestakuntza espezifikoak izan behar dute ikasleek) eta abar. Ikaslearekin eta haren familiarekin adostuko dira neurri horiek.
- Ustez erasotzailea den ikasleari dagokionez, gisa honetako jokabideen harira jartzen diren neurriak hartu aurretik –mugak ekar ditzakete–, behar adina froga bildu behar da. Behin-behineko aldaketak egin daitezke taldean-gelan, mugak zenbait zerbitzuren erabileran (adibidez, jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak...). Neurri horiek guztiak behin-behineko neurritzat har daitezke 201/2008 Dekretuaren 61. artikulua arabera, Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura abiaraztea eskatzen dute.

2.- I. ERANSKINA eta A Txostena egiten diren uneen arteko aldia

- Jazarpena egon edo ez, ikastetxeak inplikaturako ikasle guztiekin egingo ditu heziketari lotutako jarduerak; baita erasotzaileekin ere.
- Jazarpena dagoela dioten behar adina ebidentzia biltzean, berehala eta anbiguotasunik gabe jokatu behar da erasotzailearekin eta haren familiarekin. Irmo eta anbiguotasunik gabe adierazi behar da jazarpen-jokabideak beti direla gaitzesgarriak eta ez dutela berriro gertatu behar. Mezu hori argi adierazi behar zaie ikasle horiei eta haien familiei, eta berehala.
- Era berean, adierazi behar zaie, ikastetxetik kanpoko jazarpen-jokabideak ere ez direla onargarriak eta ikastetxean gertatu balira bezala jokatuko dela (201/2008 Dekretuaren 50.1 artikulua).
- Jazarpena dagoenean, hasieran ez da komeni berdinen arteko adiskidetze- eta adostasun-neurririk hartzea. Harremanean dagoen disimetria eta biktimizazioa direla-eta, jazarriak diren ikasleak ez dira erasotzaileekin begirunean eta elkarrekiko adeitasunean oinarritutako harreman berri baten baldintzak adosteko moduan egoten. Pixka bat itxaron eta ikasleekin bereiz lan egin behar da, adiskidetzeak eta akordioak zentzu hezigarria izan dezaten.
- Kontuz egin behar da talde-gela osoarekin esku hartzeko moduaren eta unearen plangintza, bereziki jazarpena larria denean. Jazarpen-kasu larri bat dagoenean eta, ondorioz, elkarbizitzari kalte larria egiten dioten jokabideak daudelako neurri zuzentzaileak aplikatu behar direnean, komeni da talde-gelan egiten diren lehen jarduerak tutoreak ez egitea, baizik zuzendaritza-taldeko norbaitek edo beste irakasleren batek (Prozedura zuzentzaileko instruktoreak, etab.).

2. JARDUERAK GELAN.

XEDEA: TALDEAN- GELAN ELKARBIZITZA POSITIBOA BERRESKURATZEA.

HELBURU OROKORRAK:

- ✓ **Gela ingurune segurua izatea lortzea.**
 - Ikasleek gelako eta ikastetxeko eguneroko elkarbizitzako tratu onak eta txarrak identifikatzeko trebetasunak eta estrategiak garatzea.
- ✓ **Pertsonen arteko harremanak lehen-eratzia.**
 - Pertsonen arteko komunikazioa hobetzea.
 - Enpatiarako gaitasuna garatzea.
 - Norbere eta besteen sentimenduak eta emozioak identifikatzea.
 - Asertibitatea garatzea.
 - Haserrea eta bulkadak kontrolatzeko estrategien erabilera hobea sustatzea.
 - Norbere buruari begirunea merezi duela aitortzeko eta egoera zailei aurre egiteko gai izateko tresnak eta estrategiak eskaintzea.
- ✓ **Garapen moralak hobetzea.**
 - Ikasleek salatari / solidario dilema moralaren aurrean posizio etikoa hartzeko gaitasuna garatzea.
 - Ikasleek ongizate kolektiboa lortzeko erantzukizun eta konpromiso indibidualaren sentimendua garatzea.
 - Taldeari "gu"aren kontzientzia positiboa ematea eta horrek harremanak erregulatzea. Taldea ahalduntzea.
 - Taldeko kideen artean lankidetzarako gaitasuna indartzea.

GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK:

- ✓ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✓ Norbera izaten ikasteko konpetentzia.
- ✓ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✓ Komunikaziorako konpetentzia; ahozkorako, ez ahozkorako eta digitalerako.
- ✓ Konpetentzia soziala eta gizalegeari lotutako konpetentzia.

TUTORETZA SAIOETARAKO JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK

Zortzi lan-saio planteatu ditugu. Horiek nola garatzen diren ikusita eta ikasleak eta irakasleak kontuan hartuta, saioen iraupena eta/edo kopurua egokitu ahal izango da.

Saio guztiek hiru une bereiz hauek izango dituzte:

1. **HASIERA:** lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea.
Hurrengo saioetan, aurreko saioan eginikoa eta eginiko ebaluazioa gogoraraziko dizkiegu; hau da, zer atera zen ondo eta zer hobetu behar den.
2. **GARAPENA:** proposatutako dinamika bakoitzak azalpen-fitxa bat izango du eta ikasleek idatzizko lan bat egin behar badute ere, fitxa bat izango dute horretarako.
3. **AMAIERA:** saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.

OHARRA: Saiotarako proposamenak egokitu egin behar dira saioak nola doazen ikusita eta behar adina saiotan luza daitezke.

TUTORETZA SAIOETARAKO PROPOSAMENA

HELBURU ZEHATZAK	JARDUERAK	MATERIALAK	DENBORA	EBALUAZIOA
1. Talde-gelaren kohesioa indartzea	<p>Hasiera: Lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea.</p>		5'	<ul style="list-style-type: none"> Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. Begirunez hartu ditu besteen iritzia, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. Modu aktiboan hartu du parte proposatutako dinamiketan.
	<p>Talde-kohesiorako zenbait dinamika egitea.</p>	<p>Dinamikak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zooa. Itsu-gidaria. Zubia. Entzuten. Transmisio-katea. <p><i>Gida didaktikoa</i></p>	50'	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		5'	

<p>2. Gainerakoek seguru sentitzeko duten eskubidea urratzen duten jarrerak eta jokabideak irizpide etikoen arabera identifikatzea, proposatutako hausnarketa-egoeretatik abiatuta (bideoa, kontaketa, albistea...).</p>	<p>Hasiera: Lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea.</p>		5'	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu ditu iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Bideoak ikustea. Bideo bakoitza ikusi ondoren, ikasleek, talde heterogeneotan jarrita, proposatutako gidoiaren arabera egingo dute eztabaida eta, ondoren, ideiak partekatuko ditugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Friends</i>-en bideoak: <ul style="list-style-type: none"> · Ilegorria. · Ikusezina. · Elkarrekin. <p><i>Bideoak lantzeko gida</i></p>	50'	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		5'	

<p>3. Eguneroko jarrera eta jokabideetan harremani modu positiboan edo negatiboan eragiten dieten elementuak identifikatzea.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5´	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Gure ikastetxean berdinen artean sortzen diren harremanak aztertuko ditugu eta ondo noiz eta nola sentitzen garen identifikatuko dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeko zenbait espazioaren argazkiak. • Ikasleentzako tresnak: <ul style="list-style-type: none"> · Banaka. · Talde txikia. <p><i>Gida didaktikoa</i></p>	50´	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		5´	

<p>4. Jazarpen-kasu batean jazarpenaren elementuak identifikatzea.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5'	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Bideoak ikustea. Bideo bakoitza ikusi ondoren, ikasleek, talde heterogeneotan jarrita, proposatutako gidoiaren arabera egingo dute eztabaida eta, ondoren, ideiak partekatuko ditugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bideoak: <ul style="list-style-type: none"> · Bully dance. · Friends-futbol. · Egunon printzesa. · Levántate. <p><i>Bideoak lantzeko gida</i></p>	45'	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p> <p>Prozesuaren ebaluazioa: Saioaren amaieran, ordura arte eginiko lanaren ebaluazio espezifikoa egingo dugu: <i>Ebaluaziorako fitxa</i>.</p>		10'	

<p>5.- Proposatutako gatazka-egoera batetik abiatuta, egoerari aurre egiteko eta hura ebazteko aukerak modu kritikoan sortzea, adieraztea eta baloratzea.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5'	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Mariaren kasuaren azterketa. Kasua aztertu eta haren inguruko hausnarketa egin ondoren, amaiera egoki bat aurkitzen saiatuko dira ikaslea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mariaren kasua <p><i>Kasua lantzeko gida</i></p>	50'	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		5'	

<p>6. Ikasleei eskola-ingurunean egunerokoan izaten dituzten arazo moraletan hausnarketa etikoak egiten laguntzea.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		<p>5´</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Dilema moralak lantzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1. dilema • 2. dilema • 3. Dilema <p><i>Irakaslearentzako gida</i></p>	<p>50´</p>	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		<p>5´</p>	

<p>7. Amorrua eta inpulsiotasuna kontrolatzeko estrategiak hobeto kudeatzen bultzatzea.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		<p>5´</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Erregulazio emozionala lantzeko hiru dinamika proposatzen dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zergatik haserretzen naiz? • Zergatik haserretzen naiz? (Ikaslearentzako fitxa) • Haserrea kontrolatzen dut • Barkamena eskatzen badakit <p style="color: blue; text-align: center;"><i>Irakaslearentzako gida</i></p>	<p>50´</p>	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		<p>5´</p>	

<p>8. Komunikaziorako, akordioetarako eta konpromisoak hartzeko bideak ezartzea gatazkak indarkeriarik gabe lantzeko.</p>	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5´	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako dinamiketan.
	<p>Komunikaziorako, akordioetarako eta konpromisoak hartzeko bideak aztertzea eta ezartzea, eskola-jazarpenik gabe gela/ikastetxea izatea lortzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabide aukerak: <ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordezkariak • Adostoki (adostasuna bilatzeko lekua) • Eskola-bitartekaritza <p><i>Irakaslearentzako gida</i></p>	45´	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p> <p>Amaierako ebaluazioa: Amaierako ebaluazioa egingo dugu. <i>Ebaluaziorako fitxa.</i></p>		10´	

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

1. saioa

Helburua: Talde-gelaren kohesioa indartzea.

Taldearen kohesioa lortzeko bost dinamika proposatuko ditugu. Horietatik bi aukeratu behar dira, taldearen, egoeraren eta abarren arabera.

Dinamika bakoitzak bere azalpena du.

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

2. saioa

Helburua: Gainerakoek seguru sentitzeko duten eskubidea urratzen duten jarrerak eta jokabideak irizpide etikoen arabera identifikatzea, proposatutako hausnarketa-egoeretatik abiatuta (bideoa, kontaketa, albistea...).

Gida hau lagungarri izango du saioa dinamizatuko duen irakasleak. Zenbait gai edo galdera proposatuko dira bideo bakoitza ikusi ondoren planteatzeko.

Bideo bakoitza ikusi ondoren, ikasleek, talde heterogeneotan jarrita, proposatutako gidoiaren arabera egingo dute eztabaida eta, ondoren, ideiak partekatuko ditugu.

Proposamen honek ez dakar nahitaez hiru bideoak ikustea. Irakasleek erabakiko dute proposatutakoetatik zenbat bideo ikusiko dituzten ikasleekin elkarrizketa sortzeko helburuarekin.

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

1. Aukeratu ikusitako bideoarentzat egoki irizten diozun izenburu bat.

2. Zer mezu nagusi ematen du bideoak?

3. Sentitu al zara inoiz bideoan azaldu diren pertsonetakoren bat bezala?

4. Adierazi bideoan landutako gaiari buruz duzun iritzia.

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

3. saioa

Helburua: Eguneroko jarrera eta jokabideetan harremanei modu positiboan edo negatiboan eragiten dieten elementuak identifikatzea.

Ikasleei berdinen arteko harremanetan eragiten duten elementuak identifikatzen laguntzen saiatuko gara. Harremanak zailak edo errazak izatea dakarten arlo edo espazioak ere identifikatuko ditugu; baita ikasleak ondo eta seguru zer espazio edo lekutan sentitzen diren ere.

Horretarako, irakasleak ikastetxeko espazioen argazkiak aterako ditu (ikasleekin edo ez) aurretik: patioa, sarrera, eskailerak, gelak, jangela, gimnasioa, aldagelak, autobus-geltokia... Ikastetxe bakoitzean arriskurik gehieneko espazioak zein diren pentsatu behar da.

Gelan, **talde osoa batera**, espazioak aztertuko dira (aurrez ateratako argazkiak jar daitezke ikusgai). Ikastetxearen plano handi batean ere jar daitezke argazkiak.

Aztertu ikuspegi hauetatik?

- Zergatik sentitzen dute segurtasuna/segurtasun-gabezia?
- Zer gertatu ohi da edo gertatzeko arriskua dago gu seguru ez sentitzeko?
- Zer egin dezakegu leku horiek seguru bihurtzeko?

Talde txikitan (lauko taldeak):

Fitxa bat emango zaie bakarka bete dezaten eta, ondoren, taldean beteko dute fitxa, partaide bakoitzaren ekarpenak kontuan hartuta.

Ondoren, ideiak partekatuko ditugu ikastetxeko leku seguruenak eta arrisku handienekoak zein diren erabakitzeko, ikasleen pertzepzioaren arabera. Horiez gain, harremanetan gaizki sentiarazten gaituzten eta ondo eta seguruago sentiarazten gaituzten elementuak ere identifikatuko ditugu.

Ikasleentzako materiala. Kopia bat ikasle bakoitzarentzat.

Banakako lana

a) Sartu zure espazio pertsonalean eta ekarri gogora ondo sentiarazten zaituzten uneak. Bete ondorengo taula hau:

		Egoera/Lekua	Arrazoiak	Sentimenduak	Ondorioak
ONDO SENTITZEN NAIZ egoera hauetan:	Neure buruarekin				
	Nire ikaskideekin				
	Irakasleekin ditudan harremanetan				
	Gelako metodologiarekin				
	Nire lanarekin eta emaitzekin				
	Ikastetxeko bizimoduan dudan parte-hartzearekin				

b) Sartu zure espazio pertsonalean eta ekarri gogora gaizki sentiarazten zaituzten uneak. Bete ondorengo taula hau:

		Egoera/Lekua	Arrazoiak	Sentimenduak	Ondorioak
GAIZKI SENTITZEN NAIZ Egoera hauetan:	Neure buruarekin				
	Nire ikaskideekin				
	Irakasleekin ditudan harremanetan				
	Gelako metodologiarekin				
	Nire lanarekin eta emaitzekin				
	Ikastetxeko bizimoduan dudan parte-hartzearekin				

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

Talde txikia

Partekatu aurreko tresnan adierazitakoa eta jaso taulan:

ONDO SENTITZEN GARA egoera hauetan:				
	Egoera/Lekua	Arrazoiak	Sentimenduak	Ondorioak
Geure buruarekin				
Gure ikaskideekin				
Irakasleekin ditugun harremanetan				
Gelako metodologiarekin				
Gure lanarekin eta emaitzekin				
Ikastetxeko bizimoduan dugun parte-hartzearekin				

GAIZKI SENTITZEN GARA egoera hauetan:				
	Egoera/Lekua	Arrazoiak	Sentimenduak	Ondorioak
Geure buruarekin				
Gure ikaskideekin				
Irakasleekin ditugun harremanetan				
Gelako metodologiarekin				
Gure lanarekin eta emaitzekin				
Ikastetxeko bizimoduan dugun parte-hartzearekin				

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

4. saioa

Helburua: Jazarpen-kasu batean jazarpenaren elementuak identifikatzea.

Bideo bakoitza ikusi eta ondoren lantzea proposatzen da. Irakasle-taldeak baloratuko du saio bat baino gehiago behar ote den.

- “Bully dance”, “Friends futbol” eta “Levántate” bideoak: ikasleek, talde heterogeneotan jarrita, aztertu egingo dituzte bideoak eta eskola-jazarpeneko kasuetan izaten diren elementuak identifikatzen saiatuko dira: jazarpenaren jatorria, biktima den pertsona, erasotzailea dena, ikusleak eta inplikaturako pertsona guztiei dakartzkien ondorioak.
- “Egunon printzesa” bideoa: ikasleek, talde heterogeneotan jarrita, aztertu egingo dituzte bideoak eta eskola-jazarpeneko kasuetan izaten diren elementuak identifikatzen saiatuko dira: jazarpenaren jatorria, biktima den pertsona, erasotzailea dena, ikusleak eta inplikaturako pertsona guztiei dakartzkien ondorioak.

Bideo hori oso egokia da sare sozialen erabilera etikoa lantzeko. Alde horretatik, ikastetxeko elkarbizitzan sare sozialen erabilerak dituen ondorioen garrantzia nabarmendu nahi dugu: ziberbullyinga (gidoiko 5. galdera bideo hori lantzeko).

Bideo hau baliabide ona da bullyingaren eta ziberbullyingaren ezaugarriei eta bien arteko aldeei buruz hitz egiteko.

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

“Bully dance”, “Friends, futbol” eta “Levántate” bideoak lantzeko gidoia:

1. Zer kontatzen du bideoak? Zergatik uste duzu gertatzen dela egoera hori?

2. Zer rol dute protagonistek?

3. Sentitu al zara inoiz bideoan azaldu diren pertsonetakoren bat bezala?

4. Adierazi bideoan landutako gaiari buruz duzun iritzia.

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

“Egunon printzesa” bideoa lantzeko gidoia:

1. Zer kontatzen du bideoak? Zergatik uste duzu gertatzen dela egoera hori?

2. Zer rol dute protagonistek?

3. Sentitu al zara inoiz bideoan azaldu diren pertsonetakoren bat bezala?

4. Ezagutzen al duzu bideoko protagonistak bizitako egoeraren antzekoren bat bizitu duen norbait? Azaldu.

5. Zure ustez, zer alde daude honen eta aurreko bideoaren artean?

JARDUERAREN EBALUAZIOA GELAN: 4. SAIOA 4. Proposatutako gatazka-egoera batetik abiatuta, egoerari aurre egiteko eta hura ebazteko aukerak modu kritikoa sortzea, adieraztea eta baloratzea.	
Adierazleak	Adierazi zure balorazioa 1etik 10era. 1 balorazio baxuena izango da eta 10 altuena.
1. Saioa taldearentzat erabilgarria izan dela uste al duzu?	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
2. Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute.	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
3. Parte hartzeko eta entzuteko jarrera egokiarekin hartu duzu parte elkarrizketan.	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
4. Begirunez hartu dituzu iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe.	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
5. Zure ustez, taldea(k), harremanetan...	-Zailtasun asko ditu 1 -Zailtasunak ditu 2 -Ez du zailtasunik 3 -Ondo moldatzen da 4 -Oso ondo moldatzen da 5

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

5. saioa

MARIAREN KASUA

Helburua: Jazarpen-kasu bati aurre egiteko eta kasua konpontzeko aukerak proposatzea eta horien balorazio kritikoa egitea.

1.- Irakurri Mariaren kasua. Irakasleak Mariaren kasua irakurriko du eta ikasleei eskatuko die pentsatzeko ea protagonista nola sentitzen den. Azaldu kontatutakoa egoera irekia dela, amaierarik gabea...

2.- Lana binaka:

Identifikatu pertsona batzuei, beste batzuek haiekin dituzten jokabide eta jarreraren erruz, sufrimendua eragiten dieten egoerak. Min fisikoa, beldurra, bazterkeria... sentitzen dituzten egoerak izan daitezke; azken finean, sufrimendu handia eragiten dietenak. Jarri adibideak.

3.- Lana talde txikian. (4 laguneko taldeak)

Eskatu ikasleei erantzuteko galdera hauek:

1. Taldeko kideek zer sentimendu dituzte hasieran? Zer arrazoigatik dute haien taldea lagun-taldetzat? Zer partekatzen dute, zertan dira konplize?
2. Zergatik uste duzue harreman on hori arazo bihurtu dela? Zerk ekarri du egoera berria?
3. Zer sentimendu dituzte orain istorio honetako neskek?
4. Zer egoeratan dago orain Maria? Zergatik?
5. Nork uste duzue eragiten diola sufrimendua Mariari? Norbait onura jasotzen ari al da egoera berri honetatik?
6. Proposatutako talde osoarentzat ona izango den irtenbide bat. (Nori eska diezaiokete laguntza? Zer motatako laguntza? Zer egin dezake inplikaturako pertsona bakoitzak arazoa konpontzeko?)

Taldeko lana amaitzean, proposaturako irtenbideak irakurriko ditu bakoitzak. Irakasleak, bitartean, modulatu egingo du, galderak egin, ideiak egiaztatu, ikasleei argudioak eskatu... hala, pertsona guztiak ondo, entzunak, seguru eta abar sentiaraziko dituen konponbide egoki bat lortzeko eta inplikaturako pertsonen artean harreman ona berreskuratzeko.

AUKERA: irtenbideak beste laneko saio batean antzez daitezke. Oso interesgarria izango litzateke hori, ikasleek kasuari dagokion paperen bat eginez gero, sentimenduak eta emozioak bizitu eta, aldi berean, enpatiarako, modu aktiboan entzuteko eta abarrerako gaitasuna garatuko bailukete.

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

Banatu Mariaren kasua talde bakoitzari paperean.

MARIA

Maria 12 urteko neska da. Joan den urtera arte oso pozik zegoen bere lagun-koadrilan. Haien artean, Lola bereziki miresten zuen, mutilen aurrean ausarta zelako, baina oso ondo moldatzen zen ere Julene, Karmele eta Rakelekin. Oso talde ona osatzen zuten. Lagun minak ziren.

Sekretu asko partekatzen zituzten, interneteko pasahitzak barne. Horrela haietariko edonor besteen kontuetan sartu ahal zen, mutilek bidaltzen zizkieten mezuak ikusi ahal izateko ...

Eskubaloi taldean laurak zeuden, arratsaldez elkarrekin ibiltzen ziren ikastetxetik irtetean, gelan ere elkarrekin egoteko ahaleginak egiten zituzten, eskolako lanetan laguntza ematen zioten elkarri ... Ikastetxeko saltsa guztietan sartuta zeuden. Agian horrexegatik deitzen zioten “las popus”. Maria oso zoriontsua zen bere lagunekin.

Baina dena hasi zen aldatzen Mariak lagunei esan zienean ez zitzaiola gustatzen egunero Alexen koadrilaren atzean ibiltzea, edota beraiekin une guztietan gelditzea ... Taldean hori komentatu zuenetik, lagunek – eta bereziki Lolak- “estrecha” deitzen hasi ziren, eta handik egun batzuetara, kalera ateratzeko deitzeari utzi zioten.

Gauzak gehiago okertu ziren Lolak WhatsApp talde berri bat egin zuenean: “Las popu-sexis” izenekoa. Maria barruan zegoen. Izena ez zitzaien gustatu; ez zen gustura sentitzen izen horrekin. Gainera bere amak mugikorra kontrolatzen zion. Lolari esan zion taldetik irtengo zela eta horrela egin zuen.

Lagunak gehiago haserretu ziren berarekin: berataz txarto esaka hasi ziren, ez zioten hitzik egiten, patioan ez ziren berarengana hurbiltzen, gelan ez zuten berarekin egon nahi eta bakarrik uzten saiatzen ziren ...

WhatsApp-ak jasotzen hasi zen: “lesbiana”, “bollera”, “estrecha” eta abar deitzen zioten ... Ikaskideen mugikorretan bere argazki manipulatu bat dantzan zebilela jakin zuen, ikastetxeko pasilloetatik ibiltzean, bera inguratzean, besteak isiltzen ziren; bere atzetik zurrumuruak entzuten zituen; Alex eta bere lagunek “lesbiana” esaten zioten ...

1. Taldeko kideek zer sentimendu dituzte hasieran? Zer arrazoigatik dute haien taldea lagun-taldetzat? Zer partekatzen dute, zertan dira konplize?
2. Zergatik uste duzue harreman on hori arazo bihurtu dela? Zerk ekarri du egoera berria?
3. Zer sentimendu dituzte orain istorio honetako neskek?
4. Zer egoeratan dago orain Maria? Zergatik?
5. Nork uste duzue eragiten diola sufrimendua Mariari? Norbait onura jasotzen ari al da egoera berri honetatik?
6. Proposatu talde osoarentzat ona izango den irtenbide bat. (Nori eska diezaiokete laguntza? Zer motatako laguntza? Zer egin dezake inplikaturako pertsona bakoitzak arazoa konpontzeko?)

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

6. saioa

Helburua: Ikasleei eskola-ingurunean egunerokoan izaten dituzten arazo moraletan hausnarketa etikoak egiten laguntzea.

Dilema moral bat kontaketa labur bat da. Egoera arazotsu bat planteatzen da, balio-gatazka bat duena; izan ere, problema moralak bi irtenbide posible ditu, gatazka dago bien artean, eta bi irtenbideak dira egingarriak eta defendagarriak... Jokabide bat aukeratzeko zailtasun horrek jokoan diren balioen inguruko arazoiketa moral bat eginarazten du eta gure balioei ematen diegun garrantziaren inguruko hausnarketa egitea ere eskatzen du.

Dilemak lantzearen helburuak hauek dira, besteak beste:

- Norbere balioen eskala ezagutzea eta balioen hierarkia ezartzea.
- Enpatiarako trebetasun soziala garatzea; hau da, besteen lekuan jartzen jakitea.
- Besteen iritziak eta jokabideak errespetatzea, gureen aurkakoak diren printzipio eta balioekiko tolerantzia garatuz.
- Ikuspegi ezberdinen inguruan, elkarrizketa arazoituaren eta iritzi-trukearen alde egitea.
- Judizio morala eratzea, jokabidearen etikara aplikatutako diskurtso-logika garatuz.
- Adimen emozionala lantzea sustatzea, gatazkak konpontzeko bidean arazoiketak, sentimenduak eta emozioak uztartuz.
- Norbere jokabideak eta iritziak arazoitzea, giza jokabideen konplexutasuna aztertzeko arazoia erabiliz.

Hona hemen gelan aztertzeko hiru dilema moral.

1. DILEMA

1. dilema talde osoan landuko dugu, irakaslearen modelatze-lanarekin.

Irakasleak ozen irakurriko du dilema eta ikasleak bi taldetan banatuko ditu. Talde bakoitzak bi aukeretako bat argudiatu eta defendatu beharko du. Hala, ikasleei dilemak modu autonomoan lantzeko estrategiak emango dizkiegu.

2. ETA 3. DILEMAK

Lau taldetan banatuko ditugu ikasleak. Horietako biri 2. dilema emango diegu eta beste biei 3.a. 2. dilema landu behar duten bi taldeek, dilema irakurri eta talde bakoitzak bi irtenbide posibleetako bat defendatu eta argudiatuko du. Gauza bera egingo dugu 3. dilemarekin.

1. DILEMA. Leiho bateko kristala hautsi da gelan ikasle baten jokabide txarraren ondorioz. Irakasleak ea nor izan den galdetu du eta esan du erruduna azaltzen ez bada, denen artean ordaindu beharko dutela ordainketa eta beste zigor batzuk ere jasoko dituztela. Ikasle-talde batek badaki erantzulea zein den, baina ezer ez esatea erabaki du, arazoa sortu duen ikaslea laguna dutelako, eta ez dutelako salatari edo traidoretzat hartuak izan nahi. Gainera, erantzulea nor den aitortzeak ekarriko lizkiekeen arazoak eta trabak saihestu nahi dituzte.

Ondorioz, talde osoak jaso du zigorra. Zuzena iruditzen al zaizu ikasle horien jokabidea? Zer egingo zenuke zuk antzeko kasu batean?

Taldearen erdiak 1. aukera defendatuko du argudioak erabiliz eta bigarren erdiak 2. aukera.

1. aukera: Zuzena da.

2. aukera: Ez da zuzena.

2. DILEMA. Hegoik, ikastetxerako bidean doala, ikusi du nola Julen, Ane eta Mikelek, beste maila bateko ikasleek alegia, txoko batera eraman dutela Jon, beheragoko maila bateko ikaslea. Joni mehatxuka ari dira, ogitartekoa eman diezaien. Hegoi hurbildu egin zaie eta esan die uzteko Jon bakean, baina beste hirurek esan diote joateko eta ez sartzeko muturrik besteen gauzetan. Gainera, ikusitakoa norbaiti kontatzen badio jipoitu egingo dutela egin diote mehatxu.

Gertatutakoa salatu egin behar al lioke Hegoik ikastetxeko irakasleren bati?

Talde batek 1. aukera defendatuko du argudio bidez eta beste taldeak 2. aukera.

1. aukera: Ez salatzea da zuzena.

2. aukera: Salatzea da zuzena.

3. DILEMA. Urtebete darama Mirenek ikastetxean eta bigarren ikasturteari ekingo dio aurten. Iaz ez zuen lortu inolako lagun-taldetan integratzerik, behin baino gehiagotan saiatu arren. Aurten gehien gustatzen zaizkion ikaskideen taldeko kide izaten saiatu nahi du. Galdetu die ea haien taldeko kide izan daitekeen eta erantzun diote, horretarako, ikasle berriei txantxa bat egiten lagundu behar diela. Eta zera proposatu diote: jolasgaraian berriengana joan eta galtzak jaistera behartzea, eta esandakoa bete ezean jipoia jasoko dutela mehatxu egitea.

Parte hartu behar ote luke Mirenek horretan?

Talde batek 1. aukera defendatuko du argudio bidez eta beste taldeak 2. aukera.

1. aukera: Ez parte hartzea da zuzena.

2. aukera: Parte hartzea da zuzena.

Ondoren, ideiak partekatzeko ariketa egingo dute: talde bakoitzak egokitu zaion aukeraren defentsa argudiatuko du, taldeak emandako argudioak eskainiz.

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

2. DILEMA

Hegoik, ikastetxerako bidean doala, ikusi du nola Julen, Ane eta Mikelek, beste maila bateko ikasleek alegia, txoko batera eraman dutela Jon, beheragoko maila bateko ikaslea. Joni mehatxuka ari dira, ogitartekoa eman diezaien. Hegoi hurbildu egin zaie eta esan die uzteko Jon bakean, baina beste hirurek esan diote joateko eta ez sartzeko muturrik besteen gauzetan. Gainera, ikusitakoa norbaiti kontatzen badio jipoitu egingo dutela egin diote mehatxu.

Gertatutakoa salatu egin behar al lioke Hegoik ikastetxeko irakasleren bati?

1. aukera: Ez salatzea da zuzena.

Zure taldean uste duzue Hegoik gertatutakoa EZ SALATZEA DELA ZUZENA. Idatzi hemen iritzi hori defendatzeko erabiliko dituzuen argudioak.

ARGUDIOAK:

2. aukera: Salatzea da zuzena.

Zure taldean uste duzue Hegoik gertatutakoa SALATZEA DELA ZUZENA. Idatzi hemen iritzi hori defendatzeko erabiliko dituzuen argudioak.

ARGUDIOAK:

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

3. DILEMA

Urtebete darama Mirenek ikastetxean eta bigarren ikasturteari ekingo dio aurten. Iaz ez zuen lortu inolako lagun-taldetan integratzerik, behin baino gehiagotan saiatu arren. Aurten gehien gustatzen zaizkion ikaskideen taldeko kide izaten saiatu nahi du. Galdetu die ea haien taldeko kide izan daitekeen eta erantzun diote, horretarako, ikasle berriei txantxa bat egiten lagundu behar diela. Eta zera proposatu diote: jolasgaraian berriengana joan eta galtzak jaistera behartzea, eta esandakoa bete ezean jipoia jasoko dutela mehatxu egitea.

Parte hartu behar ote luke Mirenek horretan?

1. aukera: Ez parte hartzea da zuzena.

Zure taldean uste duzue Mirenek txantxa horretan EZ PARTE HARTZEA DELA ZUZENA. Idatzi hemen iritzi hori defendatzeko erabiliko dituzuen argudioak.

ARGUDIOAK:

2. aukera: Parte hartzea da zuzena.

Zure taldean uste duzue Mirenek txantxa horretan PARTE HARTZEA DELA ZUZENA. Idatzi hemen iritzi hori defendatzeko erabiliko dituzuen argudioak.

ARGUDIOAK:

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

7. Saioa

Helburua: Amorrua eta inpulsibotasuna kontrolatzeko estrategiak hobeto kudeatzen bultzatzea.

Erregulazio emozionala lantzeko hiru dinamika proposatzen dira:

1. jarduera. Zergatik haserretzen naiz?

Asko haserretzen garenean, oso-oso haserre gauden une horretan bertan, besteari edo zer gauza egingo genioke, gu sentitzen ari garen mina besteak edo norbaitek ere jasatea nahi dugu. Pentsatu gabe erantzungo bagenu, besteari kalte handia egiteaz gain, gure buruari ere kalte egingo genioke.

Dinamika honetarako helburu espezifikoak:

- Sentitzen ditugun emozio negatiboen zergatia jakitea.
- Emozio horiek sentitzen ditugunean nola erantzuten dugun jakitea.
- Emozio negatiboak erregulatzeko modurik onena ikastea.

Bakarka (ikusi fitxa) :

Pentsatu zure ohiko portaeran eta erantzun itzazu galdera hauek:

- *Zergatik haserretzen naiz askotan, gehienetan, noizbait?*
- *Nire amak, aitak, azken bolada honetan esan dizkidaten gauzetatik zeintzuk ez ditut onartzen? Zergatik?*
- *Irakasleek, azken bolada honetan esan dizkidaten gauzetatik zeintzuk ez ditut onartzen? Zergatik?*
- *Lagunek esaten dizkidaten gauzetatik, zeintzuk ez ditut onartzen? Zergatik?*
- *Nire portaera, errendimendua, jarrera, ... hobetzeko zerbait esaten didatenean, nola erantzuten dut normalean? Zer pentsatzen dut normalean?*

Talde txikitan:

Hirunaka jarrita taula (ikusi fitxa) osa ezazue denen artean adibide bat asmatuz:

Talde handian:

Ariketaren inguruan hausnarketa egingo dugu, talde bakoitzak bete duen taula azalduz.

Bukatzeko, galdera hauen erantzunak aurkitzen saiatuko gara denen artean:

- *Zeintzuk dira gehien haserretzen gaituzten egoerak?*
- *Zer egingo dugu egoera zailen aurrean? Zein errekurtso erabil dezakegu?*

Ikasleek aurkezten dituzten erregulaziorako estrategia ezberdinak jaso eta kartoi mehe handi batean idatziko ditugu. Kartoi meheak gelako paretan itsatsiko ditugu.

Horrez gain, irakasleak estrategia ezagunak erakustea komeni da: irudikatzea, 10 arte kontatzea, denbora ahaztea, meditazioa, erlaxazioa, paisaiak irudikatzea, ariketa fisikoa egitea ...

Ikasleek estrategia ezberdinak hautatuko dituzte eta egunerokoan idatziko dituzte, kontzientzia hartzeko.

2. jarduera: Haserrea kontrolatzen dut

Norbaitekin haserretzen garenean, gomendagarriena lasaitzea da. Behin baretu ondoren, haserrea sortarazi digun pertsonarekin hitz egin behar dugu, bere jarrerak mindu egin gaituela adieraziz.

Dinamika honetarako helburu espezifikoak:

- Gure emozioak identifikatu eta kontrolatzen jakitea.
- Egoera zailei aurre egiten jakitea.
- Emozioak kontrolatzeko estrategia ezberdinak ezagutzea.

Metodologia

Irakasleak haserrea sentitu zuten azkeneko aldia gogora ekar dezaten eskatuko die ikasleei. Ondoren, une hartan haserrea sortarazi zien pertsonari zer esango lioketen idatziko dute ikasleek.

Tutoretzako hurrengo saioan, aurrekoan idatzitakoarekin jarraituko dute, baina oraingoan, mendekua adierazten duten esaldiak ezabatuko dituzte. Ondoren, haserrea sortarazi zien pertsonaren tokian jartzen saiatuko dira eta jokabide hori izatearen arrazoiak idatziko dute, amaieran barkamena eskatuz. Gero, aurreko guztia aztertuko dute eta haserrea sortarazi zien pertsonari oraingoan esango lioketena idatziko dute. Azkenean, bakoitzak bere kasua aipatuko du ikaskideen aurrean.

Komenigarria da ariketa hau bi saiotan egitea. Honela, arazoa berriz gogoratzeak sor dezakeen tentsioa denborari esker indargabetu egiten dela frogatuko du ikasleak

3. Jarduera. Barkamena eskatzen ere badakit

Norbaitek min ematen digunean, barkamena eskatzea nahi izaten dugu, izan ere, horrela hobeto sentitzen gara. Baina guk geuk kalte egiten dugunean asko kostatzen zaigu barkamena eskatzea.

- **Dinamika honetarako helburu espezifikoak:**
- Besteei batzutan kalte egiten diegula onartzea.
- Gure hanka-sartzeak identifikatzea.
- Barkamena eskatzen ikastea.

Metodologia

Talde txikitan:

Ikasle bakoitzak konfiantzazko lagun bat aukeratu du eta, binaka jarrita, bata besteari honelakoak esango dizkio:

- Norbaitek noizbait kalte handia egin zidaneko deskripzio osoa egingo diot
- lagunari, noiz gertatu zen, nola, oraindik min sentitzen dudana gogoratzerakoan...
- Barkamena eskatuz gero, orain berdin egongo al nintzateke? edo hobeto?.
- Nik neronek ere norbaiti egin nion kaltea zein izan zen, barkamena eskatu al nion...

Talde handian:

Beranduago, borobilean jarriko dira guztiak eta hausnarketa bultzatuko dugu, galdera hauek erabiliz:

- *Barkamena eskatzeak zertan laguntzen du?*
- *Eskatzen duenari zertan laguntzen dio?*
- *Eta kaltetu izan denari, zertan?*
- *Kalte guztiak barkamena eskatzeko modukoak dira edo batzuk bakarrik?*
- *Zergatik kostatzen zaigu hainbeste barkamena eskatzea?*

Ondoren musika goxoa jarriko da gelan eta guztiak oinez hasiko dira norabide guztietan, musikaren doinua gozatuz. Horrela dabiltzala, norbaiti zerbait esan nahi badiote aprobetxatu egingo dute; bizkarrean jo, besarkatu, barkamena eskatu zerbaitegatik ...

Berrito borobilean eseri eta aurreko jardueran nola sentitu diren komentatuko dute, hau da, barkamena eskatu eta eman dietenean.

Gelako ikasleen jarreraren arabera, irakasleak bakarkako lana antola dezake, non ikasle bakoitzak kalte egin dion egoera bati buruz hausnartuko duen.

Ikasleek askatasunez joka dezaten, irakaslea ez da gainean egongo.

IRAKASLEARENTZAKO GIDA

8. saioa

Helburua: Komunikaziorako, akordioetarako eta konpromisoak hartzeko bideak ezartzea gatazkak indarkeriarik gabe lantzeko.

1. jarduera

Hona hemen proposamena: hasteko, ekarri gogora aurreko saioetan landutakoa eta pentsatu ea zer ikasi dugun eta ikasitakoak zertarako balio izan digun.

Ondoren, ikasleei eskatuko diegu pentsatzeko ea ikastetxean zer komunikazio-bide ezagutzen dituzten haien kabuz konpondu ezin dituzten gatazkak kudeatzeko. Pentsa dezatela, baita ere, ea bide horietatik zein erabili ohi dituzten.

Aipatutako bide horiek ez daudelako edo erabiltzen ez direlako suerta daitezkeen egoeren aurrean, zenbait aukera eskainiko dizkiegu ikasleei, aztertu eta egoki irizitakoak aukera ditzaten.

Adibide batzuk:

- **Elkarbizitzarako postontzia (fisikoa eta/edo birtuala).** Kaxa bat jarriko da gela bakoitzean (postontzia) denbora-tarte jakin batean. Tarte horretan, elkarbizitzaren aurkakoak direla uste duten egoerak detektatzera animatuko ditugu ikasleak. Ikastetxean eta handik kanpoko esparruetan eta uneetan bizitakoak izan daitezke egoera horiek. Horietako egoera bat detektatzean, orri batean idatzi eta postontzian sartuko dute orria. Nahi adina egoera azal ditzakete. Ekarpinak anonimoak edo sinatuak izan daitezke.
Ezarritako denbora-tarte hori amaitzean, tutoreek gelan jasotako informazioa bilduko dute. Gela bakoitzeko emaitzak berrikusi eta aztertuko dituzte tutoreek. Azkenean, itzulketa egingo diote gela bakoitzari. Itzulketa horretan, ikasleekin batera aztertuko dira azaldu diren egoerak eta horien eragile izandako arrazoiak eta ondorioak ere aztertuko dira. Gelaren batean zuzeneko esku-hartzea eskatzen duten egoerak ba ote dauden ere kontuan hartuko da.
- **Gelako ordezkariak.**
- **Adostoki** (Adostasuna bilatzeko lekua). (Dokumentuko 108. or.).
- **Eskola-bitartekaritza.** (Dokumentuko 24. or.).

Dauden aukerak aztertu ondoren, gela osoak erabaki bat hartu behar du eta aipatutako bide horien jarraibideak eta erabilerari lotutako konpromisoak ezarri. Baliabide hori ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, hilean behin berrikusketa/azterketa egitea planteatuko da.

2. jarduera

Esku hartzeko proposamen hau gelako jokabide egokien dekalogoia eginda itxiko genuke. Interesgarria litzakete hezkuntza-komunitateko gainerako kideei ere dekalogoia ezagutaraztea, triptiko baten bidez, horma-irudiak eginda, ikastetxeko webgunean, kanpaina bat eginda eta abar. Elkarbizitza positiboa eta eskola-jazarpenik gabeko gela/ikastetxea izateko hartutako konpromisoa komunitateko gainerako kideengana iristeak izango luke garrantzia.

JARDUERAREN EBALUAZIOA GELAN: 8. SAIOA 8. Komunikaziorako, akordioetarako eta konpromisoak hartzeko bideak ezartzea gatazkak indarkeriarik gabe lantzeko..	
Adierazleak	Adierazi zure balorazioa 1etik 10era. 1 balorazio baxuena izango da eta 10 altuena.
1. Saioa taldearentzat erabilgarria izan dela uste al duzu?	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
2. Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute.	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
3. Parte hartzeko eta entzuteko jarrera egokiarekin hartu duzu parte elkarrizketan.	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
4. Begirunez hartu dituzu iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe.	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
5. Zure ustez, taldea(k), harremanetan...	Aukeratu egokiena iruditzen zaizuna: -Zailtasun asko ditu -Zailtasunak ditu -Ez du zailtasunik -Ondo moldatzen da -Oso ondo moldatzen da
6. Zure ustez, taldea(k)...	Aukeratu egokiena iruditzen zaizuna: -Zailtasun gehiago ditu -Berdin jarraitzen du -Hobekuntzak egitea lortu du -Hobekuntza handiak egitea lortu du